

Urratik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 22a / 16. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otorlora Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurtelai@goiena.com • Lege gordailua: SS483/05

ELKARRIZKETA

AINARA OLABARRIETA ETA BALEN VALOR/UDALEKUETAKO BEGIRALEAK

“Gaztainuzketan parranda ederra egin genuen; dantzari, geratu barik”

XABIER URTZELAI

Ainara Olabarrieta eta Balen Valor ibili dira bi astez gaztetxoekin hara eta hona, udalekuetan. Martitzenean izan ginen eurekin, eta Armentiarako bidean harri-patu genituen, zaldietan ibiltzeko asmoz.

Nondik nora zabiltzate?

Armentiarako bidean, Araban, baina galdu samar gabiltza, ez dakit iritsiko garen. (Barre) Koadrila polita etorri gara, 18 neska-mutiko daude, eta baita hainbat guraso ere. Hasiera baten, gaztetxoek dute zaldietan ibiltzeko asmoa, baina ez dakit gurasoren bat animatuko ez ote den.

Ekintza mordoa egin dituzue orain arte; zer moduz?

Oso ondo, gustura gabiltza. Joan den urtea lehenengo urtea izan zen guretako, eta oraingoa bigarrena denez, esperientzia handiagoa daukagu. Ekintzak hobeto prestatu ditugula esango nuke, eta gaztetxoekin ere konfiantza handiagoa daukagu. Gainera, urtean zehar ludotekan ibili gara, eta guztiak ezagutzen ditugu ondo; baita eurek gu ere.

Egin dituzuen ekintza guztien artean, zeinek izan du arrakasta handien?

Gaztainuzketako mendi-etxetan gaua igaro genuenean ederto ibili ginen, a zelako parranda!!! Afaldu aurretik ezkutaketan ibili ginen jolasten, eta afaldu eta gero, gau guztia egin genuen dantzari; lo egin bagenuen ez zen ordubete baino gehiago izan. Gurasoak 10:00etarako etorri ziren, eta arratsalde hartan kamisetak egin behar genituen!!!

Oraindik, baina, baduzue zerekin entretenitu.

Bai, bai. Bihar (eguztana), ur-gudua egingo dugu; joan den urtean ederto ibili ginen. Uretako pistolak, globoak... Seguru aurten ere iturri barruan amaituko dugula.

Gatzagako udalekuek duten abantaila?



XABIER URTZELAI

“Aurten esperientzia handiagoa dugu, eta konfiantza handiagoarekin ibili gara”

Gazte guztiek elkar ezagutzen dutela, eta lasai asko ibil daitezkeela kalean. Horrekin batera, gurasoek ere esku hartzen dute udalekuetan, eta hori Gatzagan bakarrik gertatzen da.

Eta desabantailak?

Inguruan paraje ederrak daude, baina umeek igerilekuetara edo Landara joan gura izaten dute, eta horretarako automobila behar da. Akaso, hori da gauza txarrena, hainbat ekintza egin ahal izateko kanpora joan behar dugula.

“Adin bakoitzaren arabera ekintzak antolatzea izango litzateke aproposena”

Amaitzeko, zelan hobetu Gatzagako udalekuak?

Akaso, talde gehiago egin beharko genituzke, adina kontuan hartuta. Kontua da orain guztiak ibiltzen direla batera, haurrak eta gaztetxoak. Eta aproposagoa izango litzateke banaketa egin, eta talde bakoitzean adinaren araberrako ekintzak egitea. Hori izan daiteke hobetze aldera egin daitekeen zerbait, baina taldeak txikiagoak izango lirateke; hori ere kontuan hartu behar.



Argazkian dagoen eskuinaldeko horma botako dute errepidea zabaltzeko.

Hodiak sartzeaz gain, autobus geltokia egin gura dute

X.U.


Irailean hasiko dituzte herriko urarendako, gasarendako eta saneamendurako hodi berriak sartzeko lanak, eta lan horiek aprobetxatu gura dituzte Gatzagako goiko sarrerako errepidean ere hainbat lan egiteko. Alkateak eman digu horren berri: “Behin mendi batek su hartu zuen, eta suhiltzaileen kamioiak zailtasun handiak izan zituen herri barrura sartzeko. Horrekin batera, ura

hartzeko orduan ere, ur-harguneak oso presio txikia zuen”. Urhartune berriak jartzearekin batera, hodi berriak ere sartuko dituzte, baina lanak ez dira hor bukatuko: “Errepidea zabaltzeko gura dugu, eta horretarako, behetik gora eginez gero, eskuinaldean dagoen horma botako dugu”. Errepide zati berriak hainbat erabilpen izan ditzake. Herrirako sarrera hobetzea izan daiteke bat, baina autobus geltokia da herri-tarrek gura dutena.



Udalekuak amaitzeko, Dorletara

Udalekuak amaitzeko kanpaldia egingo dute asteburuan Dorletan. Kanpaldi hori, baina, ez dute begiraleekin egingo, gurasoekin baizik. Hala, Gurelekoen asmoa da udalekuak egun pare batez luzatzea. Zapatuan afari-merienda egingo dute Bengoe-rrekan, eta gero abiatuko dira Dorleta aldera. / X.U.



Ondo ibili!



ANDRAMAIXAK

ABUZTUAK 14, 15, 16 eta 17

aretxabaleta



Aretxabaletako
Udala

*Aretxabaletako Udalak Andramaixa
zoriontsuak opa dizkizue aretxabaletar
eta bertara hurbiltzen zareten guztioi.*